



MUGAN

Paseo Colón, 27 - 20.302 - Irún

Irungo kontsumo erantzulearen dekalogo

- 1. Tokiko erosketak aldeketa sozialerako tresna gisa: efektu multiplikatzailea.** Irungo herritar gisa gure gertuko ingurua aldatzeko gai gara, gure erosketa-saskiarekin auzoetako lanpostuak mantendu eta berriak sortzera lagun dezakegu, eta ondorioz, gure komunitateko bizi-kalitatea hobetzera. Gure esku dago gure dirua "handiei" edo "txikiei" ematea. Honek, gainera, efektu multiplikatzailea dakar eta Irunen bertan geratzen den "aberastasuna" sortzen du.
- 2. "Buruarekin" erosiz.** Erosketa erabakia benetan duzun behar bat asetuz bideratu beharra dago, alferrikako gastu hori saihesten saiatu, zure erosketa-saskiko "gehigarri" horiek alegia, askotan "hondakin" eta "zarrastel" izatera iristen direnak.
- 3. Saltzaile-erosle harremanaz gozatu.** "Konfiantzako" gure merkatariarekin kontaktu pertsonala berreskuratu dezagun, pixkanaka-pixkanaka eratzten doan harremana eta poztasun "gutxi batzuk" behintzat sorrarazten dizkiguna, gero eta gehiago "elkar ezagutu" gure behar propioei eta gertuko pertsonen, senitaratekoen eta lagunaren beharrei hobeto egokituko da erosketa.
- 4. Erosketak familian egiteko hezi eta ikasi.** Elikagai on bat nola erosi, nola eskatu, zeintzuk dira behar ditugun osagaiak... ikasten da ere: "ez dugu ez dakiguna egiten". Erosketak familian edo lagun artean egitera ikasi eta irakatsi dezagun, produktuaren eta eskaintzaren kalitatea baloratu.
- 5. Euskaraz hitz egin dezagun.** Erabili eta praktikatu dezagun euskara gure "merkataritza-elkarrizketetan", agerian gera dadila gure hizkuntza Irungo kale eta dendetan.
- 6. Irungo merkataritza nahi eta espero duguna komunika dezagun.** Gure beharrik bakarrik zein kolektiboki komunikatu ditugun: entzun gaitzela eta aukera izan dezatela euren zerbitzuak eta eskaintzak gure benetako beharretara egokitzeko.

7. Merkataritza eta ostalaritza gizarte-antena gisa: Irunen gertatzen ari denaren berri eman diezaguten. Merkataritza eta ostalaritza, era ezberdinetako pertsonen elkargune sozial gisa, Irungo plataforma kulturalaren eta sare sozial fisikoaren parte dira, hirian gertatzen ari denaren berri ematen duten oihartzuna.

8. Ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin konpromisoa. Saltoki gisa ingurugiroarekiko errespetuaren adibide garbia izan gaituzten, jasangarritasunaren alde energiaren erabilera eraginkorra eginez, hondakinak gutxituz, etab.; Bezero gisa gertuko dendetara oinez joan gaituzten, kaltegarriak diren keak isuri gabe, aurreztuz eta bizitza osasuntsu baten alde eginez.

9. Teknologia berriak eta merkataritza tradizionala bateragarriak dira. Merkataritza elektronikoa, sare sozialak eta webguneak betiko merkataritza eta ostalaritzaren osagarri birtualak dira. Ingurune birtual horretan dagoen informazioa erabiliz, Irungo merkataritza eta ostalaritzako kaleetan garatuko diren egitarauen eta ekintzen berri izango dugu.

10. Guztion artean bertako merkataritza-agenda bat eraiki dezagun. Irungo hirugarren sektoreko egutegian etxeko-lanak eta datak jartzeko ordua iritsi da, horrela dekalogo hau praktikan jarri ahaliko dugu denbora luze batean zehar eta politikari gure merkataritza-ehunarekiko eta gure udalerrirekiko konpromisoa eraikitzen hasiko gara: fidelizazio-mekanismo bat abian jarritz (tokiko txanponaren sorkuntza eta kale-erabilera, fidelizazio-txartela...), etorkizun hurbilean itxiko duten saltokietan txandakatze-prozesuei bultzada emanaz, etab.